

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

zuzendariari@egunkaria.com



Martin Ugalde kultur parkea 20140 Andoain

Euskotren

Juan Etxenike Almeida • IRUN

Euskotrenek, bere geltokietan ez du esaten larunbat gaueko zerbitzua soilik autobusez ematen duela, ezta autobusa nondik pasatzen den ere. Larunbat gaueko Irundik Hendaiara doan 02:32ko tren hartzeraz nindoan. Eskerrak goiz nindoala. Hala ere ez zegoen inongo kartelik Euskotrenek Irunen duen geltokian. Bost minutu igaro ondoren, inguruan zegoen segurtasuneko enplegatuak nire ondo koari trenik ez zegoela adierazi zion. Nik autobus hori non hartu behar genuen galdegin nion, eta Irungo udaletxearen aurrean, Hondarribirako autobusa hartzen den geltokian esan zidan. Nola espero du Euskotrenek guk horrelakorik

asmatzea? Hala ere ez zen hor amaitu. 20 minutu eman nituen «Hondarribira doan autobusaren geltokian».

Bada autobusak ez zuen hor gelditu behar, baizik eta kalearen beste aldean. Gutxirako balio izan zuen ni errepidearen erdian oihuka eta keinuka aritzea, autobusa ez baitzen gelditu.

Dirudienez barneko batek eskatu omen zion gelditzeko, eta autobusa geltokitik 20 metro aurrerago (zebrabide baten gainean gainera) gelditu zen. Nahiz eta korrika hasi, ez zen gelditu, pertsona hori jaitzi zen, eta autobusa korrika eta presaka atera zen, ondoko tabernakoak oihuka hasi arren. Azkenean, Hendaiarako bidea oinez egin nuen nahiz eta txartela ordaindu nuen. Hori al da herritarrei zerbitzua eskaintzeko modua?

Itxaropena berreskuratzen

Iker Garcia • ARRIGORRIAGA

Larunbat honetako ikusita itxaropena berreskuratzen hasi naiz.

Mundu osoak bat egin du manifestazio bakar batean, lelo berarekin; nahiz eta leku ezberdinetan egina izan, mezu edo aldarrikapen bera izan da.

Orain aste edo hilabete batzuk itxaropena guztiz galdu nuen. George Bush-ek, inolako lotsarik gabe, benetan Irak aldean dituen interesak argi eta garbi utzi zituen, petrolio erreserbak bere alde egiten zutenekin banatzeko asmoa azaldu zuenean. Terrorismoaren aurkako gerraren azpitik, gizarteak egia jakin ez zezan asmatutako eta saldutako aitzia-

kiaren azpitik zegoena agerian geratu zen. Baina ez zen inolako erantzunik eman. Uste nuen jendea *egia* ikustean asmo horren aurka agertuko zela, baina memento horretan behintzat ez zen horrelakorik izan, eta nire itxaropenak alde egin zuen.

Larunbatean, ordea, erantzun hori ikusi egin dut. Hitzak ez dira nahiko gertatutakoa deskribatzeko. Munduak hots egin du.

Ikusi egin beharko, baina, hotsaren efektua. Kezka orain bestelakoa da: noraino heltzen da herriaren hitza? Eta noraino agintarien boterea? Agintariak kasurik egiten al diote herriari? Edo interes ekonomikoek besterik ez diote so egiten? Non dago hainbeste defendatzen duten demokrazia?

montxo



galdeiozu... ?



Zein da, zure ikuspuntutik, Itoitz bezalako urtegia egiteko benetako arrazoia?

Iratxe Lopez (Iruñea)

JUANTXO LOPEZ URALDE

Greenpeaceko Espainiako arduraduna

Arrazoi asko leudeke, baina nagusieta-koa eraikuntza enpresen irabazi gosea da. Milaka milioiko inbertsioak daude jokoan, Itoitzen, Nafarroako ubidean, eta Espainiako Plan Hidrologikoan. Nafarroari dagokionez, argi dago ez duela ez Itoitzik ezta ubide berririk behar. Alde batetik, Nafarroan ura soberan dagoelako, eta, bestetik, bestelako modu egokiak ere badirelako ureztaketarako eta uraren aprobetxatzeko.

Otsailaren 25etik aurrera **Pako Aristi • Idazlea** izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako. galdeiozu@egunkaria.com

hirusta

Castillo Suarez



Abderraman

Ez dakit ume krudelak izan ginen edo ez, baina egia da Abderraman zirikatu egiten genuela. Urdaiazpiko ogitartekoa egiten zigutenean eskaintzen genion eta berak «badakizue ezin dudala hori jan», erantzuten zigen, irri murrika batez. Gugandik desberdina zela bagenekien, hizkuntza ezberdinak bazekizkiela, baina aparteko gauzarik ez genuen ezagutzen bere herrialdeari buruz. Denbora luzez egon zen gurean lanean eta gure aitari galdeztzen diodanean, «langile ona zen», erantzuten du. Marokokoa izateagatik beste gainontzekoak bezain langile ona zela erakutsi behar izan zuen sobera ere. Gabonetan saskia ematen zieten langile guztiei. Berak ez zituen gabonak ospatzen, ordea. Gainera, edari alkoholodunak ez zituen nahi izaten, eta botilak oparitzen zituen. Abderraman lehendabizikoetako izan zen gure herrira etortzen eta ondotik familia osoa

ekarri ahal izan zuen. Katalunian bizi dira egun. Hizkuntza berriak ikasi dituzte eta esparru berriak ezagutu.

Kezkaturik gaude etorkinen integrazioaz euskal kulturaz jabetu daitezen nahi dugulako. Hatik, ezer gutxi dakigu beraien herriaz. Gurera hurbil daitezen lortu nahi dugu, ez dakigu oso ongi nola, baina egia da ezer gutxi lor genezakeela haiek dakartzaten ezaugarriak kontuan hartu gabe. Beren kulturaren balioa ez badugu aitortzen, ezinezkoa izanen da integrazioaz hitz egitea.

Alde honetatik, identitatearen kontzeptu okerra zabaldu dela iruditzen zait, kolore baka-rrakoa bailitzan, identitate batek beste bat ordezkatu ahal izanen balu bezala. Gure identitate ezaugarri ezberdinez hornitzen dugu bizipenekin, gero eta koloretsuagoa bilakatuz. Hori gauza polita da beti.